



Kolaborazioa: Vanesa Dieguez (A2 maila)

Ez zen nire euskarazko lehen ekintza izan, baina jende gutxi ginenez, egia esan, pixka bat urduri nengoen. Gure irakasleak hitz egin zuen ekintzari buruz eta ondo iruditu zitzaigun joatea. Beste forma dibertigarriago bat da euskara ikaskideekin erabili eta ikasteko.

Lehendabizi, bueltatxo bat eman genuen lorategi botanikoaren inguruan. Bueltatxo eman bitartean, Natur Gelako arduradunek parkeko zuhaitzei buruz hitz egin zuten. Ondoren, Natur Gelara itzuli ginen liburu-markatzaileak hostoekin egiteko.

Irakurtzea asko gustatzen zait, horregatik, liburu-markatzailea niretzat egin nuen!

Material guztia eman ziguten markatzaileak egiteko, euri asko ari zuelako. Kaleko hostoak bustita zeuden eta ezin ziren erabili

Ekintza hau izugarri gustatu zitzaidan eta oso dibertigarria iruditu zitzaidan. Horregatik, berriro parte hartzeko gogoia dut!